

BALOREZKO PROPOSAMENA

- Kalitateko arropak eta zapatak salduko ditugu; umeen, andrazkoen eta gizonezkoen gutxi erabilitako arropak izango dira, egoera onean daudenak. Arropa asko etiketa berriekin gordetzen dira, eta inoiz ez dira estreinatzen. Beraz, gure biltegietan jasoko ditugun arropa asko berri egongo dira.
- Zerbitzu oso bat eskaintzen dugu; bezeroaren arropak jaso, baloratu, argazkiak igo, saldu eta ordaindu gure bezeroari.
- Bezeroaren arropak web gunetik merkatuko bezero batek erosten dituenean saldu duenari bere arropa saldu dela komunikatuko zaio. Bezeroak itzulketarik egiten ez badu hurrengo lau astetan bere kontu korrontean jasoko duen zenbatekoa adieraziko zaio email bidez.
- 24 orduko zerbitzua eta bezeroak adieraziko duen helbidean jasoko dira arropak egun batetik bestera.
- Bezeroak web gunean kutxaren tamaina eta pisua adieraziko du eta guk mezularia bidaliko diogu eskatu duen kutxarekin. Eskakerak biltegietara eramateko erabiliko diren kutxen materiala erabat biodegradagarria izango da.
- Lea Artibaiko hornitzaileekin lan egiten dugu, eta Lantegi Batuetako langileei lana ematen diogu.
- Gure prozesu osoa "jasagarria" da, eta arropen berrerabilerarekin CO₂KO emisioak eta uraren kontsumoa murrizten da. Arropen %60a poliesterrarekin eginga dago. Poliesterrak duen arazorik larriena errez ez dela degradatzen da. Gure proiektuarekin arropak ez dira produzitzen, beraz poliesterraren kontsumoa murriztuko dugu.
- Bezeroak prozesu horretan ordaindu beharko duen gastu bakarra mezulariaren zerbitzua izango da.
- Erabili ezin diren edo ongi ez dauden arropak ONGtara emango ditugu eta aukera emango diogu bezeroari ONGa aukeratzeko. Honen berri ere emango zaio email bidez.
- Jostun bat ere izango dugu gure negozioan, konpondu daitezken arropak josteko eta berriro arropa hori merkaturatzeko.

SALE

